

• Elena Herran, psikomotrizista •

«Ume txikien gelak militarizatuta daude»

Bilbotarra, Garapenaren eta Hezkuntzaren Psikologia irakasten du Donostian, EHUn. “Maistra, psikologoa, psikomotrizista”, hiru hitz bere burua aurkezteko. Psikomotrizitateaz hitz egin dugu berarekin hain zuzen, arlo horretara bideratuak baititu indarrak. Kexu bat beraren ahotik: gure gizarteak ahaztua du gorputzaren garrantzia.

UNAI BREA

Psikomotrizitatea, beste asko bezala, hitz ezezaguna zen gehienontzat duela ez hainbeste urte. Orain berriz, modan dagoela dirudi. Hasteko, zer da?

Haurrari, berezko jarduera naturala den jolasaren bidez, hazten laguntzea. Hala da adar nagusi bietako bati dagokionez: hezkuntza mundua. Beste adarra osasungintza da, psikomotrizitatea terapeutikoa ere izan daiteke-eta, zailtasun espezifikoak dauzkaten umeei laguntzeko tresna. Zergatik hartu du orain garrantzia? Bada, lehen umeak kalean ibiltzen ziren, beti taldean eta beti jolasean, arboletara igotzen, txabolak egiten... Hori pentsaezina da gaurko umeengan, oraingo gizartearen antolakuntzak ez dauka lehengoaren “askatasuna”, nolabait esateko. Baina naturaltasunak eskatzen du askatasun hori, eskatzen du urratsak betetzea. Txikitxoek interesa dute zenbait gauza egiteko eta hori da psikomotrizitateak ahalbidetzen duena.

Psikomotrizitatea 0-6 urte bitarteko umeei zuzentzen zaie. Esan daiteke orduan psikomotrizitateak hartu duen garrantzia sei urtetik beherakoak eskolatzen hastetik etorri dela?

Bai. Egia da psikomotrizitatearen urrezko urteak jaiotzatik sei urtera artekoak direla.



DANI BLANCO

Garapenaren psikologiak argi eta garbi adierazten du: txikiak garenean mugimendua dugu adierazpide nagusia; zazpi urtetarako, lengoaiak ordezkutzen du mugimendua. Lehenengo haurtzaroari, 0-3 urte bitarteari, “espeziearen prototipoaren adina” esaten zaio. Piztu egiten dira etorkizuneko gaitasun guztiak, gero garatu beharko direnak. Bigarren haurtzaroan (3-6 urte) gertatzen da hori, eztanda egiten du psikomotrizitateak. Hasiera batean jolasa oso sinplea da, oso errepikakorra, eta bat-batean agertu egiten da mundu sinboliko bat.

Hitzaren lehenengo zatiak (psiko) du garrantzia, beraz.

Hasierako urteetan, hizkuntzarik ez dagoenean, mugimendua dago, eta mugimendu

hori, momentu batean, psike bihurtzen da. Hortik dator izena. Bernardo Atxagak esan zuen, *Obabakoak* liburuan, “mugimendua da biziaren beste izena”. Egia santua. Ez gara konturatzen mugimenduak zer garrantzi daukan.

Gorputz heziketa irakasle bati entzunda diot gaurko ume askori oinez ibiltzen ere irakatsi behar zaiela kasik...

Bat nator. Ume txikiak sarriegi behartuta daude jesarrita egotera, eta hori ez da ona tonu muskularreko, kontuan hartu behar da gizakion berezko portaera zutitzea dela, hala egiten duen espezie bakarra gara, era horretarako beste animaliek ez dituzten hainbat portaera izan behar ditugu. Haurtzaroan, lehenengo urtean, zutitzen ikasten da, eta gero zutik eusteak hainbat ariketa eskatzen du. Horregatik da garrantzitsua tonu muskularra.

Psikomotrizitatea umeen erasokortasuna bideratzeko tresna ere bada?

Jakina. Lege bakarra besteei minik ez ematea da. Erasokortasun maila bat beharrezkoa dugu bizitzeko, eta erasokortasun hori albo-koaren kontra erabili beharrean, beste era batera bideratu behar da. Guk esaten dugu ume bi elkarrekin borrokatzen direnean elkarrekin jolastu nahi dutelako dela. Erdibide sendoa eskaini behar zaie energia hori bideratu ahal izateko, eta hortik sortzen dira izugarriko eraikuntzak, jolasak, antzerkiak...

Psikomotrizitatean aurrerapausoak egin dira, baina sei urtetik aurrera, badirudi beste zerbait bilatzen dugula umeengan, eduki akademiko jakin batzuek hartzen dute lehentasuna.

Bai. 6-7 urteren ostean arauak hartzen du lehentasuna, arauari egokitu beharra du norberak, eta beraz beste era bateko jarduera fisikoak planteatu behar dira, baina nire ustez ikuspegia psikomotorea izan behar da. Lehentasuna ez diot gorputzari ematen, pertsonari baizik. Ez dut uste psikomotrizitatearen helburua denik pertsonak ez dakit zer nolako gaitasun fisikoak izatea, baizik eta bere buruarekin bakean haztea. Hori bai, gorputzari arreta handiagoa eman behar diogu, Descartesi esker gorputzaren eta gainerako guztiaren (lengoaia, adimena...) arteko banaketa dugu, eta izan ere alde biak oso lotuta daude. Nik, nire gorputzaren bitartez, munduarekiko harremana garatzen dut, eta nire gorputza baldintzatuta badago, azkenean inguruarekin ere ez dut harremanik.

Elkarrizketa hasi aurretik esan didazu oso ahaztuta dauzkagula 0-2 urte bitarteko umeak.



JUDIT FERNANDEZ

“Psikomotrizitatean umeak euren gaitasunaren mugan aritzen dira.

Salto egiten badute, lekurik altuenetik egingo dute. Oso ondo dakite mugak noraino errespetatu behar dituzten, baina guk gero iruzur egiten diegu, aurkezten diegun errealitatea ez delako benetakoa, ez ditugu gure mundurako prestatzen, ez dizkiegu mugak erakusten”.

Urte biko umeak dira eskolako talde gogorrenak, inork nahi ez dituenak. Zentro batzuetan ondo zainduta daude, borondateari esker, baina beste batzuetan, borondatea nekeak ordezkatu duenetan, utziago daude, eta esango nuke militarizatuta daudela gelak, irizpidea da helduak balira bezala jokatu behar dutela umeek. Urte bikoek lurtean trankil jolasten egon behar lukete eta guk, aldiz, ilaran jarrarazten ditugu, eta papearak betetzen. Nire ustez, txiki horiekin bada-go halako tratu txarra instituzioen aldetik.

Kontua da helduon beharregatik hasi garela umeak hain txikitatik eskolatzen, eta ez pedagogian adituek hori ona dela konturatu direlako. Esango nuke arazo bat sortu dugula.

Bai, eta pentsatu behar genuke adin horretan psikomotrizitateak izan behar lukeela jarduer nagusia. Baina ez pentsa eskolatzeko hain txarra denik berez: 18 hilabetetik aurrera, ume txikiak aspertzen hasten dira etxean. Hobe da besteekin elkartzen hastea, eta eskolatzeko modu bat da. Lehen etxeetan beti egoten zen nor edo nor eta umea ez zen aspertzen, baina orain bai. Ezin dugu ahaztu gaurko baldintza sozialak zeintzuk diren. ■

**www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.**